

# LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEKO EUSKARA-PLANA

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko euskara-plana, UPV/EHUko III. Plan gidaria (2018-22) oinarri hartuta, euskararekiko konpromisoa zehazten duten bi ardatz nagusien gainean dago eraikia. Alde batetik, "Fakultateko eremu ezberdinetan euskararen erabileraren eta presentziaren diagnosiaren gain egon eta dauden tresna eta baliabideak erabili" (1-A) eta, bestetik, "Lan-hizkuntza izateko bideak zabaltze aldera, euskararen erabilera sustatu eta irakaskuntzaren eta ikerketaren kalitatea hobetzen lagundu" (1-B).

## **1-A. Fakultateko eremu ezberdinetan euskararen erabileraren eta presentziaren diagnosiaren gain egon eta dauden tresna eta baliabideak erabili**

### Diagnosirako:

Graduko ikasketetan euskararen egoeraren diagnosiaren gain egon eta berrikuntzak doitzeko ekintza planak diseinatu.

Euskararen erabilera eta presentzia neurtzen duten agenteekin elkarlana bideratu.

Euskararen egoeraren eta erabilera mailen inguruko epekako gogoetak egin, irakasle, AZP eta ikasleekin.

"Euskarari buruzko kontsulta eta iradokizunen postontzia" eratu, ikusgaitasuna eman eta emaitzak aurkeztu.

### Tresna eta baliabideak:

Ikastegia Bikain ziurtagiria lortzeko bidean jarri.

Hizkuntzen erabileraren inguruko irizpideak eta jarraibideak zehazten dituzten protokoloak egungo beharretara egokitu eta hedatu (euskararen erabilera inklusiboa, esaterako).

UPV/EHUk dituen tresnak erabiltzeko ekimenak martxan jarri:

- **AKTIBATU**, euskararen erabilera areagotzeko asmoz dauden jarduera, tresna eta helburuak erabili (<https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/aktibatu>)
- Ekimen sozialen testuinguruan sortzen diren ekintzetan, ikasle, irakasle eta AZPkoen parte hartzea erraztu (Euskaraldia edota Hezkuntza-Wikipedia programa, esaterako) ikastegiko partaide guztien artean indartzeko.
- Graduetan euskarazko komunikazio gaitasuna lantzen duten irakasgaiak sustatu.

## **2-A. Lan-hizkuntza izateko bideak zabaltze aldera, euskararen erabilera sustatu eta irakaskuntzaren eta ikerketaren kalitatea hobetzen lagundu**

Hizkuntza-ohituretan aldaketak gertatzeko, [harremanetan](#) estrategiak garatu:

- Langile eta ikasle berriei harrera egiten zaienean gure Fakultatea euskararen erabilerarako aukera gune gisa aurkeztu.
- Lehen hitza gaztelaniaz egiteko ohitura apurtzeko neurriak martxan jarri.
- Atal administratiboetan euskarazko zerbitzua eman eta euskaraz lan egitea bultzatzeko erabilera mikroplanak landu eta martxan jarri.
- Direktorioan zein bulegoetan Ahobizi eta Belarriprestak ikusarazi.
- Euskal taldeetan matrikulatutako ikasleen euskarazko komunikazio-gaitasuna hobetu ikasleen elkarlana bultzatuz: alegia, ikasleak berak izatea ikaskideei laguntza eskaintzen dietenak.
- Gaztelaniazko taldeetan ikasleak euskararen inguruko ekimenetan parte hartzerara animatu.
- Ardurak dituztenek (lidergoa, koordinazioa...), zerbitzua era aktiboan euskaraz emateko konpromisoa har dezaten sustatu.

[Irakaskuntzari eta ikerkuntzari](#) dagokienez:

- Euskarazko GrALei bideratutako saria martxan jarri.
- Irakaskuntza gidetan euskarazko ikasmaterialak erreferentzia bibliografikotzat erabiliak izan daitezen ahalbideratu.

- Irakas-materialak eta ikasliburuak sortzeko zein itzultzeko deialdiak zabaldu.
- Irakas-materialen eta ikasliburuaren deialdietan euskarri berrietarako euskarazko materialgintza sustatu.
- Euskarazko irakas-materialak sortzeko lantalde-proiektuak bultzatu (adibidez, Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuen deialdiaren barruan).
- Irakasleen etengabeko hizkuntza prestakuntzarako UPV/EHUko baliabideak zabaldu.
- Irakasle-ikertzaileek argitaratzen dituzten euskarazko irakas-materialak webguneetan eskuragarri egon daitezen erraztu.
- Euskarri digitaletan euskararen presentzia bultzatzeko ekimenetan parte hartu.
- Termino-zerrenda eleaniztunak fakultatearen webgunean argitaratu.
- [Graduondokoetan](#) espreski:
  - Master ofizialetan irakasgaiak zein berezko ikasketetan irakasgaiak euskaraz eskaintzeko aukera aztertu eta sustatu.
  - Ikastegiko masterretan irakasgai bat euskaraz prestatu eta Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzari aurkeztu, 2021/22 ikasturtean eskaintzea posible den aztertu dadin.
  - Master eta berezko ikasketetako batzorde akademikoekin batera:
    - Master eta Graduondoko Amaierako Lanak zein bestelako lan idatziak lanak euskaraz egiteko aukera ahalbidetzen lagundu, irakasle arduradunak euskaldunak badira, ikasleei aukera hori dagoela espresuki jakinaraziz.
    - Ahozko informazioa ematen denean euskara zein erdaraz eman, ikasleek eskuragarri duten dokumentazioa bi hizkuntzetan egin.
  - Urtero masterretako ikasle euskaldunen kopurua neurtu eta jarraipena egin.
  - Graduondoko euskarazko irakaskuntza Docentiaz-en gehiago balioesteko proposamena bideratu.